

EROSKI-KO OPERAZIO ZUZENDARIA PRESIDENTE JARRIKO DA AECOC-EN LOGISTIKA BATZORDEAN

- **Alberto Madariagak 20 urteko eskarmentua du EROSKIren Logistika sektorean**
- **AECOC Ekoizleen eta Banatzaileen Elkartean, 28.000 enpresa baino gehiago daude jarduera sektore askotakoak**

Elorrio, 2018ko martxoaren 1a.- [EROSKI](#)ko Operazio zuzendaria, Alberto Madariaga, presidente jarriko da [AECOC](#) Ekoizleen eta Banatzaileen Elkarteak duen Logistika Batzordean. Horren helburua da hitzarmenak sustatzea eta koordinatzea hornitzaileen, banatzaileen, operadore logistikoen eta garraiolarien artean, zertarako eta horniketa katean efizientzia hobetzeko eta horrela kontsumitzaileari balio handiagoa eskaintzeko.

Alberto Madariagak lizentzia lortu zuen Deustuko Unibertsitatean, Ekonomia eta Enpresen adarrean, eta Mondragon Unibertsitatearen masterra egin du Banaketa Enpresen Administrazioan; horrez gain, Zuzendaritza Programa egin zuen Enpresa Institutuan. Hala, hogeitau urteko eskarmentua du Logistikaren sektorean, eta hamazazpi daramatza zuzendaritzako kide, 2001ean jarri baitzen zuzendari EROSKIko Freskoen Horniketa alorrean. Geroztik, beti jardun da logistikaren eta prozesuen alorrean. Zehazki, kooperatiban, zeinetan 1996an hasi baitzen, Plataformen zuzendari aritu da; Logistikako zuzendari ere izan da, baita Negozio Prozesuen eta Informazioaren Teknologien zuzendari ere, eta, gaur egun, Operazio zuzendaria da. Alberto Madariaga 2007tik da AECOCeko Logistika Batzordeko kide.

AECOCen sektore askotako 28.000 enpresa baino gehiago daude, eta, beraz, Espainiako enpresa elkarte handienetako bat da, zeinetan lan harreman estuan jarduten diren industria, banaketa eta bitartekariak. Berak lan egiten duen eremua, Logistika eta Garraioarena, lanean ari da enpresei beren garraio eta biltegitratze operatiboak hobetzeko; era berean, proiektuak eratzen laguntzen du, Espainian salgaien garraio efiziente eta iraunkorrago bat bultzatzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)